

IKASTAROAREN IZENBURUA:	
LIDERGOAREN GARAPENA	
IKASTAROAREN DESKRIBAPENA:	
Ikastaro honen helburu nagusia da lidergoa zertan datzan erakustea. Erakundeetan egin beharreko paradigma-aldaketaz hitz egitea, pertsonen ongizatean eta garapenean oinarritutako kultura eraikitzaileagoa sortzen duen lidergo-estilora iritsi ahal izateko.	
IRAKASLEA: Teresa Aranzibia Aguirrezabal	
DATAK: Irailak 9-10-11	
ORDUTEGIA: 09:30 -13:30	
IKASTARO-MOTA (online, aurrez aurre, jardun-bikoa): Aurrez aurreko ikastaroa	
TOKIA (aurrez aurrekoetan): Usurbilgo Etumeta AEK Euskaltegia	
HARTZAILEAK: Zuzendaritza eta ardura-lanetan dabiltzan AEKko kideak.	
HARTZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK: Elkarlanean aritzea.	
HELBURU OROKORRA:	
Bakoitzaren lidergo-estiloaz jabetzea. Norberaren lidergo-estiloa lankide bakoitzak behar duen estilora egokitzea. Laguntzaileei garatzen laguntzeko tresnak ikastea.	
HELBURU ESPEZIFIKOAK:	
Norberaren burua hobeto ezagutzea. Paradigma zaharraren ostean dauden sinesmenak aldatzea.	
EDUKIAK/EGITARAUA	
	Eskola-ordu kopurua
1. Lidergoa. Paradigma zaharra/ Lidergoa eta kultura. Zer da guretzako líder izatea?	4 ordu
2. Zeintzuk dira laguntzen didaten tresnak?	4 ordu
3. Nola zuzendu nire estiloa lankide bakoitzari egokituta?	4 ordu
GUZTIRA	12 ordu
METODOLOGIA:	
<i>Pildorita</i> teorikoa. Teorian ikusi duguna euren egunerokotasunarekin kontrastatzeko ariketak.	

EBALUAZIOA:

Ebaluazioa ikastaroan izandako parte-hartzean eta jarraipenean oinarrituko da.

- GAI (Parte-hartzea eta jarraipena)
- EZ GAI (Parte-hartzerik ez)

Ikastaroa gainditzeko derrigorrezkoa izango da % 80ko asistentzia.

IKASTAROAREN BEHAR ESPEZIFIKOAK (BALIABIDE TEKNIKOAK, TEKNOLOGIKOAK...).

Ordenagailua konektatzeko pantaila bat eta "papelografo" bat.

IRAKASLEAREN CV LABURRA:**PRESTAKUNTZA**

- 1989-1995: Enpresa Zientzian Lizentziaduna ETEOn Oñatin (Mondragon Unibertsitatea, gaur egun).
- 2007: Coach zertifikazioa NEWFIELD CONSULTING en (Txile).
- 2011: Coach Senior titulua (Txile).

LAN IBILBIDEA

2002-2007: Giza baliabiabideetan egin zuen lan, CHINCHURRETA SAn, Oñatiko familia-enpresan. Bertan, 63 eguneko grebari eutsiz, komunikazio-arloaz asko ikasteko aukera izan zuen.

2007-2011: Coach aritu zen BBVA, TEKNALIA eta LAGUN ARO enpresetan.

2011: Giza baliabideetako zuzendari gisa aritu zen. EMERSON POWER TRANSMISION multinazionalean. AEBko Baltimoren zuen egoitza nagusia eta bertan, euskal eta amerikar kulturen arteko zubi-lana egiten saiatu zen.

2012-2022: Azkenengo urte hauetan autonomo aritu da lanean.

10 urte baino gehiago darama taldeekin lanean, bere harremanen kalitatean eta helburuen lorpenean hobetzen laguntzen. Honako hauek dira enpresa batzuen izenak; SCHILDER IBERICA, EROSKI, LABORAL KUTXA, ULMA, FAGOR EDERLAN, BASK CULINARY CENTER, DEUSTO, EKIDE, CIKAUTXO, GSR, PREVISORA MALLORQUINA, TELEFONICA, GRUPO UVESCO, LASARTEKO UDALA, MARKINAKO UDALA, EUSKOTREN...

Duela bi hilabete ikasketak hasi zituen fakultatera (Oñatiko ETEOra) itzuli da, jardunaldi murriztuan, talentu eta pertsonen departamentura.

BIBLIOGRAFIA: Rafael Echeverria.